

**2**

**ANDOAIN BURDIN AROAN**

**ANDOAIN EN LA EDAD DEL HIERRO**

Carlos OLAETXEA ELOSEGI

En términos generales, tras la Prehistoria se abrió paso un nuevo período histórico que los historiadores denominan Protohistoria y que es el que precede, en este caso, a la llegada de los romanos a la Península Ibérica a finales del siglo III a. C., que es la que marca el inicio de la Edad histórica propiamente dicha. Para este territorio debemos señalar que tras del descubrimiento de los últimos megalitos de la Edad del Bronce —como por ejemplo Eteneta II—, las excavaciones arqueológicas han puesto de manifiesto algunos elementos interesantes en la comarca de Andoain a lo largo de este período. Para empezar no debemos olvidar que, en esta época, se produjeron diferentes transformaciones tanto en la mentalidad de los pueblos como en su economía y en los ritos funerarios, y todos esos cambios dejaron diferentes testimonios en Andoain y sus alrededores.

En la Edad del Hierro, las transformaciones económicas se produjeron a gran velocidad y está claro que el desarrollo de los pueblos protohistóricos fue enorme, sobre todo si lo comparamos con el de épocas anteriores. Siguiendo las hipótesis de A. J. Lorrio podemos imaginar los trazos principales de la situación económica de la época: partiendo de un núcleo poblacional estable —en el que había casas, graneros y establos para recoger el ganado, y en el que, además, se elaboraban los utensilios y se daban los pasos necesarios para preparar los alimentos— se organizaban todos los lugares correspondientes al espacio económico. Muy cerca de ese hábitat estaban las huertas (productoras de los alimentos básicos) y los campos de cultivo (seguramente para plantar cereales de secano y legumbres); junto a ellos se situaban los pastizales (para alimentar al ganado durante gran parte del año). El resto del terreno, de diferente importancia según los territorios, se extendía hacia el monte (fuente de madera, frutas del bosque y caza).

Pero, sin duda, la transformación económica más importante de la época vino de la mano de la metalurgia del hierro; sin embargo, en este territorio este material no se trabajó hasta el siglo V a. C., hasta bien entrada lo que conocemos como

Oro har, Historiaurrearen bukaerak aro historiko berri bati eman zion hasiera, historialariek Protohistoria izendatu dutena, eta, gure artean, Iberiar penintsulara K.a. III. mende bukaeran erromatarrak Iberiar penintsulara sartu zireneko unera arte doana, hain zuen, horixe baita Aro Historikoari hasiera ematen diona gurean. Brontze Aroko azken megalitoen ondoren —Eteneta II aipatu daiteke horien artean—, indusketek Burdin Aroari dagozkion zenbait elementu interesgarri azalerratu dituzte Andoaingo udalerrian. Hasteko, ez dugu ahaztu behar aldi horretan hainbat eraldaketa gertatu zirela herrien mentalitatean zein ekonomian, baita hileta errituetan ere; eta aldaketa horiek guztiek beren lekukotzak utzi zituzten Andoainen eta inguruko lurraldean.

Burdin aroan, ekonomiaren bilakaerak abiada handia hartu zuen, eta argi dago, aurreko garaiekin parekatuz gero, herri protohistorikoen garapena sekulakoa izan zela. A. J. Lorriori jarraituz, orduko egoera ekonomikoaren nondik norakoak irudikatu ditzakegu: herrigune finko batetik abiatuta —bertan zeuden etxeak, uzta-biltegiak eta ganadua gordetzeko lekuak, eta bertan egiten zituzten, gainera, elikagaiak prestatzeko jarduerak eta eskulanak—, orduko gizakiak espazio ekonomikoaren gainerako alderdiak antolatzen zituen. Habitat horren ondo-ondoan baratzeak zeuden (oinarrizko elikagaiak ekoizteko) eta soroak (lehorretako zerealak eta lekaleak landatzeko ziur aski); horien ondoan larreak (ganaduaren bazkarako urtearen zati handi batean). Beste eremu guztia, lurraldeen arabera garrantzi gehiago ala gutxiagokoa, mendia zen (zur, basa-fruitu eta ehiza iturri).

Garai hartako aldaketa ekonomiko esanguratsuen, zalantzarik gabe, burdinaren metalurgia izan zen; baina, gure lurraldean, material hori ez zen landu K.a. V. mendera arte, jadanik Bigarren Burdin Aroa deritzogun garaian, alegia. Beraz, lehenengo Burdin Aroko biztanleak ez ziren “benetako Burdin Aroan” bizi izan hemen, zeren eta, burdinazko tresnak erabiltzeko aukera izan zuten arren, nahi eta nahi ez merkataritzari esker eskuratu behar zituzten. Burdina ekoizteak material berri bat jarri

la Segunda Edad del Hierro. Por lo tanto, durante la Primera Edad del Hierro, los habitantes de esta zona no conocieron realmente una “Edad del Hierro”, ya que aunque tenían acceso a utensilios de hierro y los utilizaban, únicamente podían obtenerlos a través del comercio. La producción de hierro puso en manos de los habitantes de aquel período un nuevo elemento. De este modo consiguieron un material de gran dureza y resistencia y, por ello, en esta época, se convirtió en una materia prima imprescindible para producir armas y herramientas. En tiempos protohistóricos no consiguieron obtener el punto de fusión necesario para producir el hierro, ya que con los hornos disponibles en aquel momento no se alcanzaba la temperatura adecuada para hacerlo, que era de 1.537 °C. Tras el proceso de reducción, en los hornos con forma de cubetas se obtenía una masa informe también llamada lupia, en la que se mezclaban partículas de escoria del metal de hierro, mineral sin reducir y trozos de carbón vegetal; después, esta masa necesitaba ser trabajada con mazos para elaborar los objetos necesarios a partir del metal.

Una vez que se introdujo el hierro, tanto para producirlo en sí mismo como para elaborar diferentes objetos, comenzó a ser utilizado para fabricar todo tipo de utensilios y, de este modo, el cobre y el bronce quedaron prácticamente relegados a usos ornamentales. En este probable contexto es en el que se habrían encontrado en Gipuzkoa en los últimos siglos antes del cambio de era algunos utensilios agrícolas elaborados en hierro tales como, por ejemplo, la hoz de Intxur (Tolosa) y los pequeños machetes de Basagain y Munoaundi (Azpeitia-Azkoitia)<sup>12</sup>. En el poblado fortificado de Buruntza en Andoain también hemos encontrado elementos de este tipo, como es el caso de un clavo de hierro y los restos de lo que pudiera ser un cuchillo o una hoz, seguramente anteriores cronológicamente a los hallazgos mencionados en los yacimientos arriba citados.

## 2.1. La ocupación del espacio en la Edad del Hierro

El gran cambio producido durante la Edad del Hierro a lo largo de toda Europa se manifestó, principalmente, en la transformación de los lugares de habitación. No sabemos muy bien cuál fue la razón exacta, pero la mayoría de los yacimientos que conocemos son poblados fortificados. Rodeados por una muralla o dos a lo sumo, en lugares de fácil defensa, encima de un precipicio en otros casos, estos pequeños poblados controlaban los caminos y estaban organizados para la defensa. En Gipuzkoa conocemos varios de ellos, además del de Buruntza de Andoain, podemos citar los de Murugain, Moru, Murumendi, Munoaundi, Intxur, Basagain, Santiagomendi, Akutu y Belaku. Cinco de estos enclaves habitacionales están situados a lo largo de la cuenca del río Oria, como si trataran de controlar los movimientos que por allí pudieran producirse. Desde el Norte hasta el Sur tenemos Buruntza, Basagain, Intxur, Belaku y Murumendi, situados de forma alineada tal y como puede observarse en un mapa, aunque haya que tener en cuenta que no

---

12 PEÑALVER, X.; SAN JOSÉ, S.: *Burdin Aroa Gipuzkoan=La Edad del Hierro en Gipuzkoa*. Gipuzkoako Foru Aldundia, San Sebastián, 2011.

zuen orduko gizon-emakumeen eskuetan. Gogortasun eta erresistentzia handiko metala lortu zen, eta, aro horretan, ezinbestekoak ziren armak eta lanabesak ekoizteko lehengaia ezin hobea bihurtu. Historiaurreko garaietan ez zuten burdina urturik ekoiztea erdietsi, urtze-prozesua abiatzeko behar den 1.537 °C-ko temperatura ezin baitzuten orduko labeekin eskuratu. Kubeta moduko labeetan egindako erredukzio-prozesuaren bidez masa formagabe edo lupia deitutako bat lortzen zuten, burdin metalaren partikulak zepaz, erreduzitu gabeko meaz eta egur-ikatz zatiz osatutako nahaste batean zeudela; horrek, hurrena, mailukatze-lana eskatzen zuen, objektuak egiteko erabiliko zuten metala bereiztearren lortutako oretik abiatuta.

Burdina, bai objektu amaitu gisa bai objektuak ekoizteko teknologia gisa sartu ondoren, mota guztietako produktuak lantzeko erabili zuten, eta kobrea eta brontzea ia-ia apaingarriak egiteko soilik geratu ziren. Hala, Gipuzkoan badi-tugu Aro aldaketaren aurretiko azken mendeetan dataturiko nekazaritzarako hainbat burdinazko lanabes, Intxurreko igitaia (Tolosa) edo Basagaingo golde-nabarra kasu (Anoeta), eta aizto txikiak, Basagaingoak eta Munoaundikoak<sup>12</sup>, esaterako. Andoaingo Buruntzako herri gotortuan ere badi-tugu horrelako adibideak, hala nola burdinazko iltzea eta labana edo igitai baten hondakinak, seguruenik aipatutako bi aztarnategi horietakoak baino zenbait urte lehenagoak.

## 2.1. Espazioaren okupazioa Burdin Aroan

Burdin Aroko eraldaketa handia bizitokien aldakuntzaren bitartez bururatu zen Europa guztian. Ez dakigu oso ongi zein izan zen arrazoi zuzena, baina eza-gutzen ditugun aztarnategi gehienak herri gotortuak izan ziren: harresi batez edo biz inguratuak kasu gehienetan, defendatzeko leku errezetan, amildegi baten gainean zenbaitetan. Herrixka horiek bideak kontrolatzen zituzten, eta defentsarako ongi prestatuak zeuden. Gipuzkoan, Andoaingo Buruntzakoaz gain, honako hauek daude: Murugain, Moru, Murumendi, Munoaundi, Intxur, Basagain, Santiagomendi, Akutu eta Belaku. Bizigune horietako bost Oria Ibai arroan zehar lerrokatuta zeuden, bertatik egon zitekeen mugimenduak kontrolatuko balituzte bezala. Iparretik hegora, Buruntza, Basagain, Intxur, belaku eta Murumendi dauz-kagu, mapan begiraturaz gero ongi lerrokatuta; baina, ezin dira berehalako batean garaikidetzat hartu, zeren eta datazioek adierazten baitigute, Buruntza eta Intxur zaharragoak direla (Lehenengo Burdin Arokoak); eta besteak, agian, berantiarra-goak. Beizamako Belakuaren kasuan ez dugu, ordea, daturik ezer esateko.

Dudarik gabe, ez ziren izango garai horretako bizitoki bakarrak. Gure ustez, herri gotortuez gain, orduan “baserri” modukoak ere izango ziren, aztarnak topa-tzea gaitza egiten zaigun arren, batez ere, egurrezko egiturek arrasto gutxi uzten dutelako erregistro arkeologikoan. Kokagune horiek guztiak orduko bizitzaren lekuko dira, eta barnean dauzkate gorderik bertan izan zen jendearen, jardueren, ohituren eta are sinesmenen aztarnak ere.

---

12 PEÑALVER, X. y SAN JOSÉ, S.: *Burdin Aroa Gipuzkoan=La Edad del Hierro en Gipuzkoa*. Gipuzkoako Foru Aldundia, Donostia, 2011.

todos deben considerarse contemporáneos, ya que según nos informan las dataciones, Buruntza e Intxur son los más antiguos (de la Primera Edad del Hierro) y los otros quizás un poco más tardíos. Aunque en el caso de Belaku (Beizama) carecemos de datos precisos al respecto.

Queda fuera de toda duda que estos no fueron los únicos enclaves de población en la época. Estimamos con toda probabilidad que, además de los poblados fortificados, habría lugares semejantes a "caseríos", aunque encontrar algún rastro de ellos ha sido realmente difícil por el momento, sobre todo porque las estructuras de madera dejan pocas evidencias en el registro arqueológico. Estos emplazamientos reflejan los modos de vida de la época, y en ellos han permanecido resguardadas las huellas de las personas, las actividades, las costumbres y también las creencias.

## **2.2. El poblado fortificado de Buruntza**

Buruntza es el poblado fortificado de Andoain. Está situado casi en la cima del monte del mismo nombre, en un emplazamiento protegido por una muralla, que rodea un espacio que tiene 0,77 Ha. y termina a ambos lados en el precipicio que desciende hacia Lasarte-Oria. Con los datos actuales creemos que el poblado comenzó a levantarse en el siglo V a. C. y continuó durante el siglo IV a. C. Eso es lo que corroboran, por lo menos, las dataciones de C14, aunque también se encuentran rastros de una actividad anterior a estas fechas. La muralla está compuesta por dos paredes entre las que se sitúa el relleno. Las piedras de los muros fueron elegidas entre las calcáreas de la zona, sin trabajar. El relleno, sin embargo, fue realizado con lodo y arenisca. El grosor total era de 2,50 m. En el interior de la muralla estarían las casas y, seguramente, también los animales y los campos de labranza. Probablemente utilizarían agua de lluvia, ya que las fuentes disponibles se encuentran fuera de la muralla. No sabemos cómo eran las casas, aunque si conocemos dónde estaban situadas: estaban pegadas a la muralla, ya que en ellas se acumula la mayor parte del material arqueológico correspondiente al interior de las viviendas. Alrededor de la muralla se han encontrado, durante las excavaciones, recipientes de cerámica, restos de herramientas de hierro, polen de semillas y bellotas calcinadas, una cepa de bronce junto con dos muelas de animales. Cuanto más nos alejamos del recinto fortificado, más comienza a escasear el material procedente de excavaciones hasta el punto de que en algunos lugares no ha aparecido nada.

Todavía no sabemos con certeza por qué eligieron la cima de Buruntza, aunque podemos señalar que en aquel tiempo era un lugar realmente estratégico, ya que controlaba el estrecho paso situado en la cuenca del río Oria desde una altura de 402 m.

Vayamos pues, partiendo de los descubrimientos realizados en Buruntza, a analizar las bases de la economía de la época.

## 2.2. Buruntzako herri gotortua

Buruntza da Andoaingo Burdin Aroko herri gotortua. Izen bereko mendiaren ia tontorrean kokatuta zegoen, harresi batez babestutako eremu batean. Harresiak 0.77 Ha-ko esparrua inguratzen zuen, eta Lasarte-Oria aldera dagoen amildegian bukatzen zen bi aldetatik. Gure ustez, K.a. V. mendean eraiki zuten, eta IV. mendean ere jarraitzen zuen okupazioa. Hori diote gutxienez C14 datazioek, jarduera zaharragoaren zantzuak aurkitzen diren arren. Harresia bi hormaz eta tartean dagoen betelanez osaturik zegoen. Hormetako harriak bertako harkaitzetatik aukuratutako kare-haitzak ziren, landu gabeak. Betelana, berriz, hareharriz eta buztinez osatua zegoen. Lodiera osoa 2,50 m-koa zen. Harresiaren barnean etxeak egongo ziren eta, seguru asko, abereak eta landatzeko lurak ere. Euri ura erabili zuten ia seguru, iturriak harresiz kanpo baitzeuden. Ez dakigu etxeak nolakoak ziren, baina, bai non kokatuta zeuden: harresiaren kontra, hor biltzen baita etxeen barnean aurkitu den ia material guztia. Harresiaren inguruan topatu dira, induskatzean, zeramika-ontziak, burdin tresnen aztarnak, aleen polena eta ezkur erreak, brontzezko zepa (abereen bi haginekin batera). Zenbat eta gehiago urrundu harresitik, orduan eta eskasagoa zen induskatutako materiala, zenbait tokitan ezer ere azaldu ez delarik. Ez dakigu oraindik, ziurtasunez, zergatik aukeratu zuten Buruntzako tontorra; baina, badago esaterik benetan leku estrategikoa zela orduan, Oria ibai arroaren pasa-leku estuena kontrolatzen baitzuen 402 m-ko altueratik. Buruntzako aurkikuntzetatik abiatuta, hurrengo ataletan orduko ekonomiaren oinarriak aztertuko ditugu.



11. irudia. Buruntza mendia. Herrigunea tontorrean dago.

Ilustración 11. Monte Buruntza. El poblado está situado en la cima.

### 2.3. Agricultura y ganadería

La agricultura y la ganadería eran las actividades principales en los poblados fortificados de esta época. En las excavaciones han aparecido, sobre todo, restos de actividad agraria que conocemos gracias a los estudios palinológicos. En Buruntza se ve claramente que los habitantes de la época hicieron desaparecer la cubierta vegetal (sobre todo la compuesta por roble) y que en el mismo poblado, o muy cerca, se habilitó un lugar para guardar grano. Esto lo sabemos porque el polen de los cereales es muy pesado y tiene que estar muy cerca del lugar dónde se sitúan los cultivos para que pueda realizarse un análisis polínico. Todas las especies que se han encontrado allí son el resultado de la actividad humana: *Centaurea*, *Chenopodiaceae*, *Scrophulariaceae* o *Asphodelus*. El roble (*Quercus robur*) también fue quedándose residualmente en los niveles arqueológicos y es un testimonio más del clareado del bosque y del cultivo de los cereales.

Directamente relacionadas con el cultivo del cereal conservamos las piedras que se utilizaban como molinos. Aunque los más abundantes son los manuales, que se empleaban para moler el cereal y hacer harina, en la mayoría de los casos se echan de falta las muelas de los mismos. Las tinajas más grandes aparecidas en Buruntza serían las que, con toda probabilidad, se utilizarían para almacenar el cereal. En algunos yacimientos de los alrededores, por ejemplo en Intxur, durante las excavaciones de algunas zonas determinadas del interior de las viviendas han aparecido trozos de cerámica mezclados con cereales calcinados. Todos los restos son similares y por eso podemos decir que esos grandes recipientes de Buruntza tendrían una funcionalidad análoga (Ilustración 2). Los habitantes de Buruntza eran, además de agricultores, ganaderos y, a pesar de que los hallazgos son escasos, son testimonio de ello dos trozos de muela aparecidos durante las excavaciones, uno de ellos la muela delantera de un *Bos taurus*. Parece claro que también albergaban vacas en las casas. Las huellas son escasas, dado que la acidez de la tierra es bastante alta, por lo que se encuentra en la frontera entre la piedra calcárea y la arenisca, lo que ha impedido la conservación óptima de los huesos para el análisis.

### 2.4. La caza, la pesca y la recolección de frutos

Además de la agricultura y la ganadería, la caza, la pesca y la recolección complementaron el régimen alimenticio de los habitantes de Buruntza. Desafortunadamente no conservamos rastros ni de caza ni de pesca, aunque gracias a las excavaciones sí hemos podido recuperar testimonios de actividades recolectoras. Al respecto, los estudios paleocarpológicos han dado los siguientes resultados: en Buruntza se recogieron 14 fragmentos carbonizados de bellota, todas del género *Quercus*, aunque no pudo precisarse la especie. Muchos autores han querido subrayar la importancia que la bellota tuvo en la agricultura de las sociedades primitivas de Europa. Las bellotas son alimentos similares a los cereales. Contienen carbohidratos, proteína y fibra. Potencialmente pueden cumplir el mismo papel que aquellos. En las sociedades históricas han formado parte de la dieta de varias poblaciones. Los autores clásicos



### 2.3. Nekazaritza eta abeltzaintza

Garai horretako herri gotortuetan nekazaritza eta abeltzaintza izan bide ziren jarduera nagusiak. Indusketetan, nekazaritzaren arrastoak batez ere ikerketa palinologikoan azaldu dira. Buruntzan, garbi ikusten da orduko biztanleek aurreko estaldura begetala (batez ere haritz osatua) desagerrarazi zutela, eta herrixkan bertan, edo oso gertu, alekiei toki egin zietela. Zerealen lore-hautsa oso astuna da, eta oso gertuan ereindakoa izan behar zuen haren aztarnak analisi polinikoan jaso ahal izateko. Gizakiaren presentziaren eta basoaren soiltzearen ondorio dira bertan azal dutako espezie hauek guztiak: *Centaurea*, *Chenopodiaceae*, *Scrophulariaceae* edo *Asphodelus*; haritza (*Quercus robur*), aldiz, ezkutatu zen maila arkeologikoetan, eta basoen soiltzearen eta zerealen nekazaritzaren lekuko da. Zerealen nekazaritzarekin lotutakoak dira errota gisa erabilitako harriak; ugariak eskukoak dira, zerealak xehatu eta irina egiteko baliagarriak, baina azpiko errota falta dira gehienetan.

Buruntzan azal dutako lurrontzi horien artean handienak zerealak gordetzeko erabili ohi ziren seguruenik. Inguruko aztarnategi batzuetan, Intxurren adibidez, zeramika zatiak zereal erreekin batera azaldu dira indusketetan (etxe barruko zonalde berezitu batzuetan). Berdintsuak direnez, baieztatu daiteke Buruntzako ontzi handi horiek ere antzeko funtzioa izango zutela.

Nekazariak izateaz gain, abeltzainak ere baziren biztanle haiek, eta, nahiz eta arrastoak oso urriak izan, horren lekuko dira azaldu ziren bi hagin zatiak, berotako bat *Bos taurus*-aren aurreko hagin bat. Argi dago, beraz, behi etxeratuak hazten zituztela. Aztarnak, ordea, urriak dira, lurraren azidotasuna nahiko handia baita, kare-haitza eta hareharrien muga dagoelako, eta horrek eragotzi du hezurrek irautea.



12. irudia. Buruntzako alekiek gordetzeko zeramika handia.

Ilustración 12: Gran recipiente cerámico para guardar los granos de Buruntza.

greco-latinos reconocían la utilidad y validez de las bellotas para la alimentación. El mismo Estrabón las citaba en su *Geografía*, diciendo que se consumían en los alrededores de los montes del norte de la península ibérica y que, además, durante gran parte del año la población sobrevivía en dichas zonas comiendo pan de bellota. También ha aparecido en otros poblados fortificados de Gipuzkoa, como en Basagain y Munoaundi. Además de para la alimentación humana, no pueden descartarse otros usos. Teniendo en cuenta el tanino que almacenan, son excepcionalmente útiles para el curtido de pieles, para la medicina y para la alimentación del ganado también. En cualquier caso, dichos taninos dificultan la digestión y por eso algunos autores creen que los habitantes de los poblados tostaban o cocían las bellotas para facilitar su consumo.

## 2.5. Cerámica y agricultura

Los habitantes de Buruntza, para guardar los cereales y las bellotas recurrieron, sin duda, a los recipientes de cerámica. Hay recogidas algunas grandes vasijas, cuya boca de diámetro se sitúa entre los 28 y 30 cm y que por su capacidad podrían ser aptas para guardar las semillas para el invierno y las bellotas. Otros recipientes, en cambio, son mucho más pequeños, realizados con una base plana y gruesa. La razón para esa gruesa base estaba en relación con su utilidad para la cocina, ya que los recipientes que tienen un fondo engordado conservan y transmiten mejor el calor (esto es válido también para los recipientes actuales). Tal y como hemos señalado, las bellotas se convertían en comestibles gracias al fuego, y otros alimentos pasaron igualmente por ese proceso para transformarse en aptos para el consumo (semillas, carne, etc.). Esos recipientes de fondo grueso se emplearían, por lo tanto, para cocinar alimentos. Tras analizar algunos de los fragmentos de dichas cerámicas encontradas en Buruntza desde el punto de vista de la tecnología, fue evidente de forma inmediata que el estado de conservación era muy deficiente en casi todos los casos y que los trozos de recipientes mostraban una gran porosidad. Examinados con binoculares, se pudo apreciar que los poros tenían forma de rectángulo y de rombo, es decir que habían aparecido allí y que los minerales con forma de romboedro ya habían desaparecido. Después de cortar el material en delgadas láminas y tras analizarlas detalladamente, se pudo concluir que las cerámicas estaban realizadas a partir de una masa en la que se mezclaban barro y romboedros de calcita, que habían sido cocidas por debajo de los 800 °C y que las consecuencias de haber estado bajo tierra durante 2.500 años fueron evidentes para estos recipientes: debido a la acidez de la tierra y a la lixiviación, las "pedrecillas" de calcita y todos los engrasadores se derritieron y no habían llegado hasta nuestros días. Por ello, las cerámicas encontradas parecían muy finas y tomaban la apariencia de "corcho". Por lo tanto, los fragmentos de cerámica aparecieron en un estado de conservación deplorable como consecuencia de ese proceso.

El barro utilizado también se estudió y se comprobó que era de un lugar cercano, concretamente, de las estribaciones del monte de Buruntza. Debido a la proximidad de los materiales en las faldas del monte, era mucho más fácil subirlos que bajar los recipientes, siendo la hipótesis principal que sería allí donde se

## 2.4. Ehiza, arrantza eta fruitu bilketa

Nekazaritza eta abeltzaintzaz gain, ehiza, arrantza eta bilketa baliatuko zuten Buruntzako biztanleek elikaduraren osagarri gisa. Ehizaren eta arrantzaren arrastorik ez dugu aurkitu tamalez, baina bilketaren isla diren aztarna garrantzitsuak iritsi zaizkigu indusketen bidez. Ikerketa paleokarpologikoak honako emaitzak eman ditu: 14 ezkur zati ikaztu Buruntzan, denak *Quercus* generokoak, ezin izan zelarik espeziea zehaztu. Egile askok Europako nekazaritza aurreko gizarteetan ezkurak izan zuen garrantzia azpimarratu izan dute. Ezkurak zerealen antzeko elikagaiak dira, eta karbohidratoak, proteinak eta zuntza ematen dituzte; beraz, potentzialki zerealaren papera bete dezakete. Garai historikoetan ere zenbait populaziotan dietaren parte garrantzitsua osatu ohi dute. Idazle klasikoek ezkurren elikadurarako balia garrantzitsua azpimarratu zuten, eta gozo eta garratzen artean ezberdindu zuten. Estrabonek berak aipatzen zuen —Geografian— Iberiar penintsulako iparraldeko mendi inguruetan fruitu hori kontsumitzen zela, esanez gainera zona horietan urtearen zati handi batean ezkur-ogia janean bizi zirela. Gipuzkoako beste herri gotortuetan ere azaldu dira ezkurak, Basagainen eta Azkoitia/Azpeitiko Munoaundin. Giza elikaduraz gain, beste erabilera batzuk ere ezin dira baztertu, gordetzen duten taninoa dela-eta, larrua zurratzeko balia garrantzitsua dira, eta medikuntzarako edo animalien bazkarako ere erabil zitezkeen. Edonola ere, taninoak digestiorako oztopo dira, eta, horregatik pentsatzen dute zenbait egilek ezkurak jateko txigortu edo egosi egingo zituztela.

## 2.5. Zeramika eta nekazaritza

Buruntzako biztanleek, zerealak eta ezkurak gordetzeko, zeramika-ontziak egin zituzten, dudarik gabe. Badaude jasota ontzi handi batzuk, zeinetan ahoaren diametroa 20 eta 38 cm artean dagoen (haien edukierarengatik negurako aleak edo ezkurak gordetzeko balio zezaketenak). Beste ontzi batzuk, berriz, askoz ere txikiagoak ziren, eta ipurdi lauz eta lodiz osaturik zeuden. Ipurdi loditu horren funtzioak sukaldeko lanekin lotua egon behar zuen, ezbairik gabe. Beroa hobeki gorde eta transmititzen dute hondo lodituta duten ontziek —hori egungo ontzietan ere gauza jakina da—. Esan dugun bezala, ezkurak ere suaren indarrez bihurtzen ziren jangai, eta beste zenbait elikagai ere bide horretatik pasatuko ziren (alekiak, haragia, etab.). Ipurdi lodituko ontzi horiek erabiliko ziren, bada, janaria egiteko. Buruntzan aurkituriko zeramika, teknologia aldetik, ongi aztertu genuen arkeologoek (ontzien zenbait zati ikertuz), eta berehala konturatu kontserbazio egoera tamalgarria zela ia kasu gehienetan, eta lurrontzi pusketek oso porositate handia zutela. Binokularrarekin aztertu eta gero, ikusi zen poroek lauki zuzen edo erronbo forma zutela, hau da, erronboedro forma zuten mineralak jada desagertuak zirela. Xafla meheak eginez eta ongi aztertuz, ondorio hau atera genuen: zeramikak buztina eta kaltzitazko erronboedroak nahasiz osatutako ore batekin eginda zeudela; 800 °C azpitik egosiak, eta herri horren historia bukatu ondorengo 2.500 urtean lur azpian egotearen ondorioak pairatu zituztela: kaltzitazko “harritxo” edo koi-pegabetzaille guztiak, luraren azidotetasuna eta lixibiazioa dela-eta, urtu, eta ez dira

producirían y cocerían las cerámicas y luego se subirían al poblado de Buruntza. Sin embargo, no hay ejemplos similares durante la Edad del Hierro en ningún sitio y los testimonios principales nos hacen pensar que las cerámicas se cocerían o bien dentro o bien muy cerca de los poblados fortificados. Entre las cerámicas analizadas hay un fragmento muy curioso, casi sin forma, que comparado con el resto de cerámica muestra un aspecto exterior completamente diferente. Y el interior también. Una vez analizado ese fragmento de cerámica que es mucho más grueso, se encuentra que tiene un gran parecido con las cerámicas realizadas en los poblados de Iruñerria en la misma época. Los desgrasantes son poliminerálicos y parece que están compuestos por trozos de ofita, feldespatos, piroxeno y epidota. Por el contrario, la calcita que contienen (o contenían) el resto de cerámicas no se hallan en esta. Pensamos que este fragmento de cerámica reflejaría la existencia de algún tipo de intercambio o comercio.

Por último, merece la pena mencionar un trabajo especializado relacionado con la alfarería. Parece casi seguro que las ceramistas eran mujeres y esa idea está basada en abundantes paralelos etnográficos<sup>13</sup>. En las obras clásicas de Helena Balfet también se recoge esa tendencia generalizada<sup>14</sup>. Parece ser que en la mayoría de los casos, la actividad cerámica que se producía a mano y que se utilizaba en el interior del poblado estaba controlada por las mujeres. En cambio, cuando la producción se transformaba en algo más "industrial" (como cuando se utilizaban el torno de pedales y los hornos de dos cámaras, en el norte de las llanuras altas ibéricas, las llamadas "cerámicas celtibéricas") parece ser que se convierte en el trabajo exclusivo de los hombres.

## 2.6. Metalurgia

Aunque se denomina Edad del Hierro, lo cierto es que parece ser que en estos poblados fortificados de Gipuzkoa no hubo hierro hasta el siglo V a. C. La metalurgia del bronce, en cambio, al ser más simple se desarrolló mucho más a lo largo del primer milenio. En Buruntza conservamos algunas huellas de esta última. Para fundir el cobre y el estaño no se precisa conseguir una temperatura muy alta, por lo que sólo son necesarios un gran fuego y crisoles hechos con barro para poder producir armas pequeñas y elementos de adorno (fíbulas, hebillas de cinturón, etc.). Aunque no hemos encontrado restos de estos instrumentos durante las excavaciones, sí han aparecido algunas pequeñas escorias procedentes del fundido del bronce. Esto significa que dichos trabajos se realizaban allí mismo, en las casas situadas en el interior de la muralla. Se han encontrado dos instrumentos de hierro en Buruntza, aunque no sabemos si fueron elaborados en el lugar: tenemos dos

---

13 GONZÁLEZ RUIBAL, A.: "Etnoarqueología de la cerámica en el oeste de Etiopía", *Trabajos de Prehistoria* 62, 2, 2005, pp. 49-50

14 BALFET, H.: "À propos du métier de l'argile; exemple de dialogue entre ethnologie et archéologie", *L'archéologie de l'Iraq: perspectives et limites de l'interprétation anthropologique des documents. Colloques internationaux du CNRS* 580, Paris, 1966, pp. 55-58.

gure egunetara iritsi. Horrela, aurkitutako zeramikak arinegia zirudien, eta “kortxo” itxura zuen. Horren guztiaren ondorioz, hainbat zati kontserbazio-egoera tamalgarran azaldu ziren aipaturiko prozesu horiengatik. Erabili zuten buztina ere aztertu genuen, eta ondorioztatu genuen gertukoa zela, Buruntza mendiaren oinaldekoa, hain zuzen. Buztina eta ura bazituzten eskura mendiaren oinaldean, eta askoz errazagoa zenez buztin eta ura igotzea ontziak berak igotzea baino, hipotesi nagusiak pentsarazten du nonbait zeramika horiek ekoitzi eta erreko zituztela eta gero igo Buruntzako herrira. Halere, ez dago Burdin Aroan horren adibiderik inon, eta aztarna nagusiek pentsarazten digute zeramikak herri gotortuen barnean edo oso gertu egosten zirela.

Analizatutako zeramiken artean bada zati bat oso bitxia dena —ia formarik gabea— kanpoko itxura guztiz ezberdina delarik beste zeramikekin alderatuz gero. Eta barnekoa ere bai. Askoz sendoagoa den zeramika zati hori azterturik, Iruñerriko herrixketan garai berean egindako zeramiken parekotasun handia duela nabaritu genuen. Koiepegabetzaile polimineralkoak dira, eta ofita zatiak dirudite, feldespatoz, piroxenez eta epidotaz osaturik daudenez. Aldiz, beste zeramika guztiek dituzten (edo zituzten) kaltzita zatiak ez daude zeramika honetan. Beraz, gure ustez, baieztatuta daiteke zeramika zati horrek truke edo merkataritzaren zantzu bat islatzen duela.

Azkenik, merezi du aipatzea buztzingintza lan espezializatua zela. Ia ziurra da zeramikagileak emakumeak zirela, ideia hori paralelo etnografiko ugaritan oinarritzen da<sup>13</sup>. Helena Balfeteren lan klasikoan<sup>14</sup> jasotzen da norabide orokor hori. Eskuz egindako eta herrian bertan erabilitako zeramiken langintzak emakumeek kontrolatutakoa dirudi kasu gehienetan. Produkzioa “industrialagoa” denean, (oinez mugaturiko tornua eta bi ganbarako labeak erabiltzen direnean, Iberiar goi-lautadako Iparraldean “zeltiberiar zeramika” deiturikoaren kasu), aldiz, gizonen lan esklusiboa bihurtzen zela dirudi.

## 2.6. Metalurgia

Burdin Aroa deitu arren, Gipuzkoako herri gotortuetan ematen du K.a. V. mendera arte ez zegoela burdinarik. Brontzearen metalurgia, berriz, askoz ere ximpleagoa izanik, oso garatua egon zen aurreko milurtekoan zehar. Buruntzako herrian badugu brontzearen metalurgiaren arrastorik. Kobrea eta eztainua urtu, eta brontzea lortzeko ez da tenperatura oso altua behar, eta su handi bat eta buztinez eginiko arragoak nahikoa dira arma txikiak eta apaintzeko tresnak egin ahal izateko: giltza-orratzak, orratzak gerrikoak, eta abar. Horrelako tresnarik ez dugu aurkitu indusketan, baina bai brontzea urtzearen ondorio diren zepa txiki batzuk, eta

13 GONZÁLEZ RUIBAL, A.: “Etnoarqueología de la cerámica en el oeste de Etiopía”, *Trabajos de Prehistoria* 62, 2, 2005, 49-50 orr.

14 BALFET, H.: “À propos du métier de l’argile; exemple de dialogue entre ethnologie et archéologie”, *L’archéologie de l’Iraq: perspectives et limites de l’interprétation anthropologique des documents. Colloques internationaux du CNRS* 580, Paris, 1966, 55-58 orr.

pequeños trozos de lo que puede ser una hoz o un cuchillo en muy mal estado de conservación y convertidos en magnetitas ya casi totalmente mineralizadas. El otro es un pequeño clavo de cabeza cuadrada. No se han encontrado restos de los hornos que se utilizaban para reducir el hierro, por lo que, muy probablemente, estos elementos debieron llegar a Buruntza a través de vías comerciales.

## 2.7. Ritos funerarios en la Edad del Hierro

Durante la Edad del Hierro, en toda Europa, un nuevo ritual de enterramiento hizo desaparecer las formas tradicionales de inhumación en megalitos y cuevas. Empezaron a incinerarse los cadáveres, lo que supuso un cambio importante, en el que, seguramente también tuvieron influencia otros tipos de creencias. A partir de ese momento, los modos de enterramiento serán muy variados, dando lugar al nacimiento de nuevos rituales; únicamente los cuerpos de los niños serán enterrados dentro de la casa o bajo techo, dando lugar a la aparición de un rito que va a perdurar en Euskal Herria durante siglos. Se han encontrado necrópolis en los castros de algunos pueblos de Navarra y Álava, construidas de formas diferentes: en algunos casos las cenizas de los difuntos aparecen depositadas en urnas que cubren todo el cementerio, directamente encima de la tierra, junto con los restos de los adornos que han quedado después de la cremación; en otros casos, cada urna tiene delimitado su espacio mediante un cuadrado hecho con piedras. En estas últimas aparece una estela que señala el lugar del enterramiento. Desafortunadamente, aunque continuamos buscando, ni en Buruntza, ni en ningún otro poblado fortificado de la Edad del Hierro en Gipuzkoa han aparecido necrópolis de este tipo.

Sin embargo, en la parte superior de la cuenca del río Leitzarain, en las campas alrededor del Adarra podemos encontrar docenas de otro tipo de monumentos, son los crómlechs o los llamados círculos de piedras. Algunos de ellos se encuentran dentro del municipio de Andoain, como, por ejemplo, el ya mencionado Eteneta II o el círculo de piedras conocido como "Etenetako bizkarra". En el extremo sudoccidental de las faldas del Aerre, dentro de las estribaciones del nordeste del monte Onyo. Se sitúa a 200 metros al NE del conjunto de círculos de piedras de Eteneta I. El primero es más conocido porque una de las piedras fue levantada por los socios de Aranzadi y destaca notoriamente en el paisaje<sup>15</sup>. Eteneta II es un conjunto de cuatro crómlechs, realizados con arenisca local: el primero de ellos, de 8,50 m de diámetro, está formado por 22 elementos que se encuentran al aire libre; el segundo es un círculo de piedras, de 4,90 m, N-S. y 5,50 m, E-W de diámetro; el tercer círculo de piedras de 6 m de diámetro, lo componen 13 elementos que no sobresalen por encima de la tierra; el último crómlech, de 6 m N-S y 5,30 m E-W de diámetro, lo componen 18 elementos que se encuentran al descubierto. Los crómlechs 1 y 4 los encontró Peña en 1951, mientras que el 2 y 3 Luis del Barrio y Luis Millán en 1978, permaneciendo a día de hoy sin excavar (Ilustración 13).

---

15 ALTUNA, J. et alii: *Carta Arqueológica de Gipuzkoa I. Megalitos*. Munibe (Antropología-Arkeología) Supl. 7, 1990.

horrek esan nahi du lan horiek bertan egiten zirela, harresiaren barneko etxeetan, alegia. Burdinazko bi tresna ere badira Buruntzan, baina ez dakigu bertan ekoitzita-koak ziren: igitai edo labana baten bi pusketa, oso egoera kaxkarrean eta ia guztiz mineralizatuak magnetita iraunkorra bihurturik. Bestea burua karratua duen iltze txiki bat da. Burdina erreduzitzeko labeen arrastorik topatu ez denez, gure ustez, merkataritzaren ondorioz iritsi bide ziren Buruntzara.

## 2.7. Hileta errituak Burdin Aroan

Burdin Aroan, Europa guztian, erritual berri batek desagerrarazi zuen megalitoetako eta haitzuloetako ehorzketa mota. Hildakoen gorpuak errausten hasi ziren; aldaketa garrantzitsua izan zen, ziur aski, sinesmenei ere eragingo ziena, noski. Une horretatik aurrera, hildakoen errautsak lurrian ezartzeko moduak oso anitzak bihurtu ziren, erritual ugari sortuta. Soilik haurren gorpuak ehorzten ziren erre gabe, etxearen barnean edo teilatupean, Euskal Herrian mendeetan zehar iraungo duen erritua sortuz. Nafarroako eta Arabako zenbait herri edo kastrotan aurkitu dira hilerriak, sistema ezberdinez egindakoak; hilerri osoak osatzen zituzten kasu batzuetan, hildakoen errautsak zeramika ontzi batzuetan sartuta, erraustearen ondoren gelditu diren apaingarri zatiekin batera (lurrean zuzenean); beste kasu batzuetan, atabaka bakoitzaren eremua harriz egindako karratu batek mugatzen zuen; azken batzuetan, hilarri bat jartzen zuten seinalezatzeko atabaka non zegoen.

Tamalez (bilatzen jarraitzen dugun arren) ez Buruntzan, ez eta Burdin Aroko beste Gipuzkoako edozein herri gotortutan ere, ez dugu aurkitu horrelako hilerri-rik. Leitzarar errekatik gora, berriz, Adarra aldeko larreetan dozenaka monumentu topatu dira: cromlech edo harrespila deituriko harrizko zirkuluak. Horietako batzuk oraingo Andoaingo udal-barrutian daude, Eteneta II edo Etenetako bizkarra deituriko harrespila kasu, Aerreko Zabala lepoaren hego-mendebaldeko muturrean, Onddo mendiaren ipar ekialdeko hegalaren barrenean, eta Eteneta I harrespil multzoa 200 metrora, I Erantz. Ezagunagoa da azkena Aranzadiko kideek leku-koetako bat zutik jarri zutelako, paisaian oso nabarmen gelditzen dena<sup>15</sup>. Eteneta II lau harrespildun multzoa da, bertako hareharriz eginak. Lehenengo harrespila, 8,50 m-ko diametrokoa, agerian dauden 22 lekukok osatzen dute; bigarren harrespilak 4,90 m-ko diametroa du, IH; eta 5,50 m, EM; Hirugarren harrespila 6 m-ko diametrokoa da, eta ia lur gainean agerri ez diren 13 lekukok osatzen dute; laugarren harrespilak 6 m-ko diametroa du IH, eta 5,30 m-koa da, EM. Agerian dauden 18 lekukok eratzen dute. Harrespil 1a eta 4a L. Peñak aurkitu zituen 1951n. Harrespil 2a eta 3a L. del Barriok eta L. Millánek 1978an (baina induskatu gabe daude).

---

15 ALTUNA, J. et alii: *Carta Arqueológica de Gipuzkoa I. Megalitos*. Munibe (Antropologia-Arkeologia) 7 geh., 1990.



13 irudia. Eteneta II-ko harrespilak.

Ilustración 13. Crómlechs de Eteneta II.

## 2.8. Conclusiones

No querríamos finalizar sin hacer referencia a una polémica que está de plena actualidad y sigue abierta entre los investigadores actuales. Hace algunos años, Xabier Peñalver en su tesis doctoral propuso una hipótesis sobre el significado del fenómeno de los crómlechs. Según él, dado que los crómlechs se extienden desde Leizaran hacia el Este por casi todo el Pirineo, y teniendo en cuenta que el río Leizaran podría ser la frontera física entre los várdulos y los vascones, dichos círculos de piedras formarían parte de los ritos funerarios propios del pueblo o de la comunidad étnica de los vascones. Además de eso, en relación con los poblados fortificados de Gipuzkoa —a excepción de Santiagomendi—, no se ha encontrado ningún otro crómlech en la zona, lo que podría llevar a pensar que entre los várdulos las costumbres funerarias eran diferentes. Es cierto que desde Leizaran hacia el Este se acumulan el 99 % de los crómlechs de la zona, pero esto no quiere decir que al otro lado no haya monumentos de este tipo. En los últimos años, los hallazgos en Aralar y en el monte Erroizpe nos hacen pensar que hay que realizar más investigaciones, para poder confirmar o desestimar todas estas hipótesis. Además, en la misma cuenca de los ríos Leizaran y Oria se encuentran el poblado de Buruntza y los crómlechs de Eteneta Lepo, bastante cerca unos de otros; por lo tanto, todavía hay mucho trabajo por hacer antes de confirmar completamente esta hipótesis. No se puede simplemente mencionar o sugerir (como se hace en el reciente documental *Historia de Vasconia*<sup>16</sup>) que quienes hicieron los crómlechs eran vascones y que los habitantes de Buruntza, Moru y Munoaundi, por el contrario, eran várdulos y celtas. Futuras excavaciones arqueológicas serán las que, esperemos, deberían clarificar este punto.

<sup>16</sup> <http://www.eitb.eus/eu/telebista/programak/baskoniako-historia-bat/bideoak/osoa/3459972/bideoa-baskoiak-nortzuk-izan-ziren-eta-noiz-hedatu-ziren/>



## 2.8. Ondorioak

Ez genuke bukatu nahi zientzialarien artean pil-pilean dagoen eztabaida bat aipatu gabe. Izan ere, orain dela urte batzuk, X. Peñalverrek bere doktorego tesian harrespilen fenomenoari buruzko hipotesi bat plazaratu zuen. Hipotesiaren araber, harrespilak, Leitzarandik Ekialderantz ia Pirinio osora zabaltzen direnez, eta Leitzaran ibaia baskoien eta barduliarren arteko muga fisikoa izan zitekeela kontuan hartuta, baskoiak deituriko tribu edo jende multzoarekin loturiko hileta-erri-tuak izango ziren. Horrez gain, Gipuzkoan aurkitutako herri gotortuen inguruan —Santiagomendi salbu— ez denez harrespilik topatu, pentsa daiteke barduliarren zonaldean hileta erritua bestelakoa izango zela. Gure ustez, egia izanik ere Leitzarandik ekialdera pilatzen dela harrespilen % 99, horrek ez du esan nahi bestaldean horrelakorik ez dagoenik. Azken urteotan, Aralarren eta Erroizpe mendiko aurkikuntzek lan gehiago egitera behartzen gaituzte hipotesi horiek guztiz baieztatu edo ezeztatu aurretik. Bestaldetik, Buruntzako herria eta Etenetako Lepoko harrespilak Leitzaran-Oria ibaiaren mazela berean daude, nahiko gertu bata besteetatik; beraz, oraindik lan asko dago egiteke edozein hipotesi guztiz baieztatzeko zalantzarik izpirik gabe. Ezin da sinpleki iradoki, beste gabe, (*Baskoniaren Historia bat*<sup>16</sup> dokumentalean bezala) harrespilak egin zituztenak baskoiak zirela, eta Buruntzako, Moruko edo Munoaundiko biztanleak, berriz, barduliarrek eta zeltak. Indusketak argituko dituzte kontu hauek guztiak —hala espero dugu guk—.

---

16 <http://www.eitb.eus/eu/telebista/programak/baskoniakohistoriabat/bideoak/osoak/3459972/bideoabaskoiak-nortzuk-izan-ziren-eta-noiz-hedatu-ziren/>